

## 9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera laguntzea da, manufaktura-enpresa bat da, tratu pertsonalizatua duena. Arrakasta izateko hainbat puntu izan behar ditugu kontuan.

Lehenik eta behin, gure proiektuan sartzen diren enpresekin tratu ona izatea, hau da bi partetik konforme egotea adostutako akordioarekin, gure bezeroei esperientzia on bat eskaintzeko.

Beste alde batetik, oso garrantzitsua izango da gure webgunea oso argia izatea, informazioa bilatzen ari den edonork zalantzak ez izateko, eta zalantzak edukita mezu edo dei baten bitartez gure proiektuaren parte hartzaile batekin kontaktuan jartzeko eta modu horretan duen zalantza erraz argitzeko.

Esandako guztia garrantzia handia du, dena ondo baldin badoa etekina aterako dugulako, ekintzan parte hartzen dugun guztiok. (Zerbitzua hartzen dituzten pertsonak, enpresak, eta proiektuaren parte hartzaileak)